En el lado Oeste, excepto en el jardín histórico de la Taconera (E1) podrán autorizarse construcciones tipo pabellón, de una planta sobre la rasante y cuya ocupación no supere los 300 m2.	
Sería conveniente, aún a largo plazo, la recuperación del terreno que actualmente ocupan las dos sociedades deportivas particulares para completar el recinto amurallado.	
Podrán autorizarse instalaciones permanentes de juegos infantiles cuando no supongan impacto negativo en el entorno.	
<b>Protección complementaria</b>	
BIC OM 25-9-39 BOE 7-11-39	
En cualquier caso, las actuaciones estarán sujetas a la tramitación que impone su condición de Bien de Interés Cultural.	

## ESTRATEGIA

- ES . 01 Saiakerak
- ES . 02 Orubea egokitu
- ES . 03 Bide konexioa
- ES . 05 Programa txertatu
- ES . 06 Kanpo konexioak





Proiektuaren azken emaitza baino lehen ibilbide luzea izan da. Hauek hasierako adibideak izango dira, lehen proposamen edo ideiak. Hauetan proiektuaren fase desberdinetan zehar mantendu diren ezaugarriak islatzen dira jadanik, oinarritzko kontzeptuak beraz, bai hauetan baita azkeneko emaitzan ere.


Lehenik erdi lurperatutako eraikina izateko beharra hasierako momentutik agertu egin da, kokapenari erantzuteko, tokian modu egokian txertatu dadin. Eraikina lausoa izan behar du, horizontala, inguruarenkin bat egiteko gai. Hori abiapuntua izanik, lehen agertzen zaigun eta aurrera egin beharreko arazoetako bat argiztapen eta aireztapen naturala izango dira, beraz, modu desberdinetan ahalik eta fatxada azalera gehien lortzea ere bilatu egin da.

Baita ere, harresiarekin zer nolako erlazioa gordeko duen proiektua aztertu egin da proposamen desberdinen bidez. Hemen bi puntako proposamen aurkitzen ditugu: arrikatuenetarikoa, zeinean eraikinak harresiaren gainetik egalean ateratzen da, hau ukitu gabe baina inguruan presentzia handiegia hartuz, eta kontrakoa, zeinean eraikina harresitik ahalik eta gehien aldentzen da, bere espazioa utziz.

Azkenik, kantxaren kokapenak eragin handia izango du eraikin osoaren konfigurazioan. Honetan ere saiakera desberdinak egin dira, batez ere eremuaren hegoaldean edo ekialdean kokatuz.


SANTO DOMINGOKO BARATZEN PARKEAREN BERREGITURAKETA  
POLIKIROLDEGI ETA APARKALEKUA

Proiektuaren laburpen memoria SAIAKERAK



HASIERAKO EGOERA

Orubearen egungo egoeran, lehen ikusi den moduan, aurre existentzia desberdinak aurkitzen dira. Hauetako batzuk mantendu eta besteak eraitsi egingo dira proiektu berria txertatu ahal izateko, espazio publiko desberdina sortzeko.



ORUBEA GARBITU


Lorategiaren arrasto ziren eskailera eta arrapalak kendu eta artxiboen azpiko bigarren larresia ere eraitsi beharko zen honela eremuaren kota aldaketa eta maldak aztertuz. Eremua malda natural bat bezala ikusi ahaliko dugu horrela. Gehiegizko inklinazioa edukiko zuen horrela orubea bertan espazio egokiak sortu ahal izateko.



BEHARRETARA MOLDATU


Eremua berregituratzeko, sestra hauek moldatu eta malda gogor baten ondorioz, hiru plataforma sortuko dira. Bi plataforma handi, non bi espazio publiko garatzeko aukera aurkitzen den eta tarte plataforma bat. Honela, modu naturalean, kota aldaketa sabatu daiteke eta eraikina, erdi lurperaturik plataforma hauen azpian kokatu sortzen diren lerro horizontalak fatxada izango direlarik.






IBILBIDE NAGUSIAK

Gaur egun orubea inguratzen duten bideak balio historiko-turistiko handiko bideak dira. Alde batetik, grisez harresia irudikatzen da, eta honen inguruan sortu den pasealekua eta bestetik arrosa kolorez, entzierroaren ibilbidea, orubearen barne aurkitzen diren korralilloetatik hasi egiten dena, hau puntu turistikoa bilakatu.




HARRESIA BATERATU

XX. mendean egin zen atearen eraispenaren ondorioz harresia, eta bera, honen inguruko pasealekua eten egiten dira. Proposatzen da beraz, ibilbideari jarraipena ematea zubi baten bidez, baita kota desberdineko guneak elementu irisgarrien bidez konektatzea, eskaileraz aparte.



INTERSEKZIO PUNTUA

Beraz, bi bide garrantzitsuen intersekzioan aurkitzen gara, eta puntu horretan bertan, Bzindari postuaren eraikina aurkitzen da. Beraz, aurkera ezinhobea turismo informazio gune bat bertan ezartzeko, alde zaharreko sarrera garrantzitsuenetako batean eta bi ibilbide turistikoaren elkarpuntuan.




*Harresiaren bi aldeak bateratuko dituen zubia*




*Korralillos-etik ikuspegia*






-2 SOTOA K-7.00

Nibelik baxuena guztiz lurperatua aurkitzen da eta erabilera totalen aparkalekurako bideratuta egongo da. Honen plazen erdia erresidenteentzako izango dira eta bestea rotatorioak. Bai oinezko eta baita kotxeen sarrerak behe solairu bezala ulertuko dugun +429 kotan kokatzen den espazio publikotik egingo dira.




-1 SOTOA K-3.50

Lehenengo sotan bi erabilera nagusiak bateratu egiten dira: azaleraren erdia aparkalekurako bideratzen da eta beste erdia kiroldegirako. Kantxa kontu honetan kokatuko da 8,5 metroko altuera libreko espazioa lortu ahal izateko. Aldi berean, espazio hau izango da, kota honetan bere inguruan antolatzen diren gainontzeko espazioen argi natural iturria. Horretarako banaketa gehienak beiraz egingo dira.




BEHE SOLAIRUA K+0.00

Behe solairuan espazio publiko nagusia aurkitzen da. Baita kiroldegiaren sarrera eta elementurik publikoenak, hala nola kafetegia, plazarik harrera zuzena ere izango duena, edo gradak. Kanpo eta barne espazioen arteko harremana sortzea bilatuko da.




KANPO KONEXIOAK

Bai oinezko eta baita kotxeen sarrerek behe solairu bezala ulertuko dugun +429 kotan kokatzen den espazio publikotik egingo dira. Autoen fluxua alde zaharretik kanpo etorriko da batez ere, eta oinezkoen fluxuak auzotik, auzo mailako ekipamendua izango denez gero.



KONEXIO BISUALAK  
FATXADA

Sortutako plataforma artean agertzen diren plano bertikalak eraikinaren fatxada sortuko dute. Hau guztiz beirazkoa izango da, honela kanpoaldearekin kontaktu zuzena lortu nahian eta aldi berean argitasun ahalik eta gehien sar dadin.



KONEXIO BISUALAK  
ARGIZULOAK

Azkenik, bai kantxan altuera libre handiagoa lortzeko, bai argitasun gehiago lortzeko, bai beste mota batetako kontaktu bisuala sortzeko eta espazio publikoaren azalera mugatu nahian, egituraren zertxak espazio publikoaren gainetik azalduko dira, argizuloak sortuz.




## PROIEKTUA

P . 01	Programa
P . 03	Planoak - oinplantak
P . 09	Planoak - Ebaketak
P . 13	Planoak - Altxaera
P . 14	Barne bistak
P . 17	Kanpo bistak


-2 SOTOA K-7.00

- APARKALEKUA
- Autoen parkalekua
- Motorren aparkalekua
- Bizikleta aparkalekua
- 2 komunikazio nukleo
- bizikleta biltegi eta takila gela
- Instalazio gelak
- Pellet biltegia



-1 SOTOA K-3.50

- APARKALEKUA
- Autoen parkalekua
- Motorren aparkalekua
- Bizikleta aparkalekua
- 2 komunikazio nukleo
- Aparkalekuaren informazio gunea
- Instalazio gelak
- KIROLDEGIA
- 2 komunikazio nukleo
- 2 aldagela
- 4 aktibitate gela
- Kantxa
- Jangela
- Biltegi (3)
- Botikina
- Gradak






BEHE SOLAIRUA K+0.00


- APARKALEKUA
- 2 komunikazio nukleo
- KIROLDEGIA
- 2 komunikazio nukleo
- Harrera
- Informazio gune eta administrazioa
- Bulegoa
- Langileen aldagela
- Bilera gera
- Gimnasioa
- 2 aldagela
- Gradak
- Kafetegia

- ESPAZIO PUBLIKOA
- Eszenatokia
- Harresiaren inguruko ibilbidea
- Grada
- Terraza
- lorategi txikiak




ESPAZIO PUBLIKOA K+5.00


- Plaza gogorra
- Begiratokiak
- Autobus geltokia





















SANTO DOMINGO BARRAIEN PARKEAREN BERREGITURAKETA  
POLIKIROLDEGI ETA APARKALEKUA

Proiektuaren laburpen memoria OINA PLAZA K +5.00










SANTO DOMINGOko P...URAKETI  
 POLIKIROLDEGI ETA APARKALEKUA







SANTO DOMINGOKO BARATZEN PARKEAREN BERREGITURAKETA  
POLIKIROLDEGI ETA APARKALEKUA  
Proiektuaren laburpen memoria EBAKETA







SANTO DOMINGOKO BARATZEN PARKEAREN BERREGITURAKETA  
POLIKIROLDEGI ETA APARKALEKUA

Proiektuaren laburpen memoria EBAKETA




SANTO DOMINGOKO BARATZEN PARKEAREN BERREGITURAKETA  
 POLIKIROLDEGI ETA APARKALEKUA  
 Proiektuaren laburpen memoria EBAKETA





SANTO DOMINGOKO BARATZEN PARKEAREN BERREGITURAKETA  
POLIKIROLDEGI ETA APARKALEKUA

Proiektuaren laburpen memoria EBAKETA



SANTO DOMINGOKO BARATZEN PARKEAREN BERREGITURAKETA  
POLIKIROLDEGI ETA APARKALEKUA

Proiektuaren laburpen memoria      ALTXAERA OROKORRA IBAITIK





*Harrera*

SANTO DOMINGOKO BARATZEN PARKEAREN BERREGITURAKETA  
POLIKIROLDEGI ETA APARKALEKUA


Proiektuaren laburpen memoria      BARNE BISTA





*Kanpoaldea eta kartzaren arteko harreman bisuala graden bidez*





*Kantxaren bista kafetegitik*





*+0.00 kotako plaza, sarrera eta harresia*

SANTO DOMINGOKO BARATZEN PARKEAREN BERREGITURAKETA  
POLIKIROLDEGI ETA APARKALEKUA

Proiektuaren laburpen memoria KANPO BISTA





*+5.00 kotako plaza, estalki berde eta argizuloak*

SANTO DOMINGOKO BARATZEN PARKEAREN BERREGITURAKETA  
POLIKIROLDEGI ETA APARKALEKUA

Proiektuaren laburpen memoria KANPO BISTA





*Argizuloen arteko begiratokiak*

SANTO DOMINGOKO BARATZEN PARKEAREN BERREGITURAKETA  
POLIKIROLDEGI ETA APARKALEKUA


Proiektuaren laburpen memoria KANPO BISTA



GARAPEN TEKNIKOAREN LABURPENA

- GT . 01 Eraikuntza laburpena
- GT . 02 Egitura laburpena
- GT . 03 Instalazio laburpena


## EGITURA



HEB PROFILAK

IPN PROFILAK

## ESTALKIA



GREEN ROOF

## ZIMENDUAK

Lehen aukera bezala zapata isolatuak proposatzen dira. Honen dimentsionamenduaren ondoren baloratu egingo da, hau aukerarik honena izango den hala hauek dimentsio handiak hartzen badituzte laua gomendagarriagoa suertatzen den. Egitura atalean ikus dezakegunez, zapata isolatuak izango dira erantzun egokia

Bestalde, ibaia gertu baina kota askoz baxuago batean aurkitzen da, beraz, uraren presentziak ez du oztoporik jarriko maila freatikotik gora aurkitzen garelako. Urak eragin dezakeen bulkada ez gaitu kezkatuko baina hala ere, gertuko urak dreinatu beharko dira. Hau solera sanitarioaren bidez erraz egingo dugu.

## EGITURA

### BERTIKALA

Erabilerearen arabera egitura sistema desberdinak ere aurreikusten dira, erabilera honen baldintzei erantzunez. Kasurik puntakoenetan, parkinga, kantxaren gunea eta kontentzio hormak izango ditugu.

Lehenengoan argi gutxiko egitura izango dugu, gehiengoan retikula sortuz eta 5,4m-ko argiarekin eta guztiak 3,5m-ko altuerakoak. Zutabe hauek hormigoi armatuz egitea proposatzen da.

Bestalde, polikiroldegian, kantxan 23m-ko argia estaltzeko beharra agertzen da. Honetarako altzairuzko zertxak erabiliko dira, eta hauek dimentsio egokietako hormigoi armatuzko zutabeen gainean apoiatuak. Gainontzeko espazioetan, argi domestikoagoak agertzen dira, 5m-tatik 10 era joango direnak. Hauen kokapena erregularriztzen saiatu da, aparkalekuak markatzen duen erretikula jarraituz.

Kontentzio hormari dagokionez, hormigoi armatuzkoa izango da ere eta polikiroldegia eta aparkalekuaren zati bateko perimetroan horma hau bikoiztu egingo da, behar den trinkotasuna eta aldi berean funtzionaltasun bat esleitzeko.

### HORIZONTALA (FORJATUAK)

Espazio guztiak estaltzeko hormigoi armatuzko laua trinkoa erabiliko da. Egitura homogeneizatzearen alde egin da eta ondorioz, eraikin guztiok egitura horizontala 25 cm-ko laua izango da. Honen justifikazioa ere egitura atalean aurkitzen da.

## ESTALKIA

Kasu gehienetan zapalgarriak eta erabilera publikoak izango dira. Hiru estalki maila izango ditugu: +429 kotakoa, +432,5 kotakoa eta +434 kotakoa. Lehena eta azkenekoa, plazak izango dira, beraz estalki lau igarogarriak. Erdiko maila, ordea, ez da zapalgarria izango, eta inguruko harresien estetika jarraitzeagatik green roof moduko estalkia proposatzen da.

Estalki berdea, maldan egongo da eta beraz ur bilketak kanaloien bidez egingo da. Estalki igarogarrien ur bilketak zehazteko, EKT ko HS5 dokumentu basikoa jarraituz egingo da, sumidero puntualen bidez.

## ITXITURA/AZALA

Eraikinaren azal inguratzailearen barruan tipologia desberdineko elementuak izango ditugu. Haien artean gainartzailea, gehien agertuko dena, sotoko horma izango da, ibxitura elementuz gain egituraren barne ere izango dena. Izan ere, eraikinaren izaera erdi- lurperatuak horrela eskatzen du.

### SOTOKO HORMA:

Aipatu bezala hau izango da gehien agertuko den elementua. Honen barnean bi kasu desberdin nagusi egingo dira, sotoen sakontasunaren arabera: Parkinga hartzen duen atala, non sakontasuna bi sotoen altuera hartuko du, 7m inguru; eta beste kasua, polikiroldegia sabai altuko gunea, adibidez kantxarena, kasurik okerrena izango dena, non 8,5 m-ko altuera libera izango dugun + honen azpiko sotoa, 3,5 m, 12 m inguru izanik totalen. Lehen hipotesi batean horma flexorresistenteak erabiltzea proposatzen da.

Aipatu bezala, horma bi orrietan banatuko da, baina bakarria bezala lan egin. Eraikinaren ingurua dela eta, bai lurzoruaren gogortasunagatik baita inguruko eraikuntzen gertutasunagatik, kanpoaldeko orria pilote tangenzialen bidez egitea erabaki da. Barnealdekoa berriz, bi aldeetara enkofratutako hormigoi armatuzko horma izango da. Biak josteko hormigoi armatuzko lauzak erabiliko dira 2,5 eta 3,5 m-ro.

### MEHELINA

Nahiz eta eraikinik ez izan inguruan mota honetako banaketak agertuko dira proiektuaren azalean. Alde batetik, eraikina horma baten kontra hurbiltzen deneko kasuan mehelina jarriko dugu. Eta beste aldetik, bi erabileren arteko banaketa egiteko, hau da, parking eta polikiroldegi muga markatzeko.

### FATXADA

Egituratik aske geratzen da. Eraikinaren alde opakoan fatxada aireztatua planteatzen da. Kanpo itxurari dagokionez, eraikinaren horizontaltasunarekin kontrastean jartzeko elementu bertikalez osatuko da. Fatxadan zati gehiena Oihal-hormak osatuko du, eta beraz honen perfilak ezarriko duen eritmo bertikala jarraitzea bilatuko da.

### OIHAL HORMA

Eraikina erdi- lurperatua egonik, argi naturala ezaugarri baliotsua izango da, eta horregatik ahalik eta gehien sartzea bilatuko da. Gainera, erabilera aldetik nahiko publikoak diren jarduerak gauzatzen direnez ez dago pribatutasun faltaren arazoa kasu honetan, ia aldrebes, kasu askotan kanpo espazioarekin erlazio zuzena bilatzen da.

## BARNE BANAKETAK

Banaketa akustikoak izango ditugu kirol aktibitate getetan. Sistema lehorra erabiliko da, igeltsuzko panel eta isolatzaile akustikoarekin, lana de roca. Isolatzaile akustikoa lortzeko panel bikoitza ipiniko da.

Bestalde gune hezeetako instalazioak erditik pasako diren banaketak izango ditugu. Hauek bi adreilu orriz egin daitezke, kamera bat haien artean utziz bertatik instalazioa pasa daitezke.

Azkenik, bi gune lehor banatzen dituzten banaketak izango ditugu eta gune heze eta lehorrak banatzen dituztenak. Hauek igeltsu panelekin egindako sistemaren bidez egingo dira. Gune hezeetan alikatatuak eta besteetan ez.

## ZOLADURAK

Zoladura desberdin ugari edukiko ditugu: Espazio publikoen zoladurak, izaera desberdineko espazioak izanik zoladura desberdinak ere izango dituztenak.



Parkingean: hormigoi leundua erabiliko da, forjatuaren konpresio geruza bera izan daitekeena.

Kiroldegia ekintza guneetan gomazko zoladura irristakaitza ezarriko da, hormigoi leundua gune publikoetan eta gresa gune hezeetan.

## PILOTE TANJENTE BIDEZKO HORMA



## ESPAZIO PUBLIKOAREN ZOLADURA



HORMIGOI LUZITUAK



ALIKATATUAK



GOMAZKO ZOLADURA

## BARNE ESPAZIOEN ZOLADURAK





## SANTO DOMINGOKO BARATZEN PARKEAREN BERREGITURAKETA

### POLIKIROLDEGI ETA APARKALEKUA

Proiektuaren laburpen memoria

ERAIKUNTZA LABURPENA





SANTO DOMINGOKO BARATZEN PARKEAREN BERREGITURAKETA  
POLIKIROLDEGI ETA APARKALEKUA

## SARRERA

Ondoko axonometrian ikus dezakegunez, non egitura osoaren bista orokor bat ikus dezakegun, hiru elementu berezi desberdintzen dira eraikinaren egitura definitzerako orduan. Garrantzitsuena eta axonometrian ere nagusitasuna hartzen duena, eraikina inguratzen duen kontentzio horma sistema. Gune kaxkarrenetan eta kiroldegiaren kontra daudenetan ere, horma hau bikoiztua agertzen da, bai egiturari laguntzeko bai eta zerbitzuak bertatik garraiatzeko ere. Horrela izanik, horma hau ez da horma hutsa izango, baizik eta funtzio bat ere beteko duen espazio inguratzailea ere.

Honen barnean zutabe sare bat izango dugu egitura bertikal moduan eta hauek estaliz lauzak edukiko ditugu. Zutabeak 5.4 m-ko erretikula osatuz kokatu dira, proportziorik egokiena barnean ematen diren erabilerak era egokian garatu ahal izateko. Eraikinaren geometria dela eta, erretikulak bi norabide nagusi izango ditu, axonometrian bertan antzeman ditzazkegunak.

Oraingoz aipatutakoa lur arrasetik behera gertatuko da, ez ordea egituraren azken elementua, kale mailatik gora irtengo den elementu bakarra. Hau zertxen bidez osatutako argi kutxak izango dira, zeinak lurperatutako eraikinaren argiztapen naturala bermatu eta kaletik kontaktu bisuala eskeiniko digute. Hauek, barnealdeko espazio nagusia argizatuko dute: kantxa.

Hiru elementu hauek, bakoitza bere moduan ulertu behar dela asumituz, hauen kalkulua ere modu banatuan egin da, honelan bakoitzaren beharrak banan banan aztertu ahal izanik.

Azkenik bi material erabili dira egiturarako: kontentzio hormak eta barne egitura hormigoi armatuaren bidez egingo dira eta zertxak berriz, perfileria metalikoaren bidez. Kalkuluetan ikus dezakegu zein izan diren egoera bakoitzarako egokienak

## KALKULU METODOA

Egitura honetan, erraz desberdindu ditzazkegun atal desberdinak agertzen dira. Aukeratu dugun portiko nagusi honetan, hirurak agertzen dira eta beraz hau kalkulatu, lortutako emaitzak, egitura guztira extrapolatu ditzakegu guztiaren konpresio orokor eta aldi berean nahiko afinatu bat lortzeko.

Aipatutako hiru atalaz izango dira: Alde batetik hormigoi armatuzko egitura horizontal eta bertikala, zutabe eta lauzak osatuko dutena; beste alde batetik, kantxa estalduko duten altzairuzko zertxak egongo dira, altzairuko perfilen bidez sortuko direnak, kalkuluen emaitzen arabera; eta azkenik, kontentzio elementua egongo da. Hauek hormigoi armatuzkoak ere izango dira, baina jasan beharrezko baldintzak elementu bereziena bihurtzen dute. Hormak, eraikinaren perimetro osoan aurkitu ditzazkegu, baina ebaketa honetan punturik txarrena aukeratu dugu, beraz, hemen dimentsionatu dugun horma arazorik gabe, eraikineko beste edozein ebaketa lan egin dezake.

Kalkuluaren 0 egoera, aurre-dimentsionamenduan lortutako dimentsioak izango dira, eta lortutako kargak. Behin hauek ezagututa, eba programan sartuko dugu, baldintza horietan zer nolako tentsio, esfortzu edo deformadak jasaten dituen egiturak ezagutzeko. Programan bertan, egituraren dimentsioak aldatu ditzaketu emaitzaren balioak onargarriak izan arte. Honen ondoren, beharrezkoa baldin bada, kalkulu zehatzagoak garatuko dira egitura gehiago afinatzeko.

Esan bezala, portikoa hiru ataletan banatuko da, eta hau ondo funtzionatu ahal izateko elementu batetik bestera "moztutako" lekuan sortutako erreazioak transmititu beharko dira batera lan egin dezaketela ziurtatzeko.



BIE 25MM



IHINTZAGAILU AUTOMATIKOA



EI 60-C5 ATEA



LARRIALDI LUMINARIA LED



KE DETEKTAGAILU OPTIKOA



HAUTSEZKO SU ITZALGAILU ERAMANGARRIA ABC



ALARMA ETENGAILUA



EBAKUAZIO BIDEAREN SEINALEZTAPENA

### SUTEEN AURKAKO SEGURTASUNA

ARAUDIA: CTE DB SI

Suteen segurtasuna bermatzeko, eraikina bi sute sektore desberdinetan banatu egin da, lehen aipatutako erabilera nagusien arabera: sektore bat, aparkalekuak osatuko du, 6897 m<sup>2</sup>ko azalera hartuz, eta bestea polikiroldegiak osatuko du, 3349 m<sup>2</sup>ko azalera hartuz.

Araudiak ez du aparkaleku sektorearen azalera mugatzen, bai odrea erabilera publikoko sektorearena. Horregatik, ihintzagailu bidezko su itzalgailu sistema automatiko instalatuko da eraikin osoan zehar. Honekin, sektorearen azalera bikoiztu dezakegu baita ebakuazio ibilbideen luzeera %25a luzatu.

Aparkalekuan bi solairuko irteera egongo dira eskailera bereziki babestuen bidez. Polikiroldegian beste bi komunikazio nukleo egongo dira, eskailera bebestuen bidez. Behe solairuan leku segurura irteera egingo da, kalera, aparkalekutik, aipatutako bi komunikazio nukleoaren bidez eta polikiroldegian 4 irteera egongo dira.

Instalazioaren parte izango dira: sute aho ekipatuak, 25 metroko luzerakoak, eraikinaren azalera guztian irisgarriak izanik; hautsezko su itzalgailu eramangarriak, ebakuazio ibilbidetik 10 m-ra gehienez kokatuak, beharrezko seinaleztapenarekin; ke detekttagailu optikoak, eraikin osoan zehar erretikula osatuz; alarma etengailuak; soinu alarma, bat solairuko; eta beharrezko seinaleztapena ebakuazio ibilbidearen inguruan. Bidea zeharkatzen duten atek suaren aurkako erresistentzia izango dute dute EI 60-C5 eta hauen gainean larrialdi luminariak kokatuko dira hauek markatzeko.

### ESTUDIO TERMIKOA

ARAUDIA: CTE DB HE1 ETA HE0

Estudio termikoa garatzeko eraikinaren ingurutzailerak guztia aztertuko da, baita barneko banaketa bai bertikalak baita horizontalak ere. Eraikinaren erabilera dela eta, eskaera termikoak baxuak izango dira. Aparkalekuan ez da berokuntza sistemarik behar eta kiroldegiaren gehiengoan ezta ere. Kiroldegiko neguko tenperaturak 13-15 gradu izango dira kirol espazioetan. Bi gela gordeko dira, ekintza "motelak egiteko" berokuntza sistema bidez hornituak. Bestalde, administrazio espazioan eta kafetegian ere berokuntza sistema instalatuko da.

Kirol ekintzen bidez sortutako beroaz probesteko aireztapen sisteman bero errekuadoreak instalatuko dira, horrela, aireztapen eskararak bermatu parean berokuntzaren eskariak ere mugatuko dira. Berreskuratzailerak %90,7 ko errendimendua izango du.

Berokuntzaren eskari energetikoa xumea izan arren, ez da berdina pasako ur bero sanitarioaren eskariarekin, izan ere aldibereko ur bero eskaera handia gertatuko da egunean zehar.


Eraikina erdi luperatua egonik, ingurutzaileraren gehiengoak sotoko hormak osatuko dute, klimatikoki babestua egonik. Honen kontra, fatxadaren gehiengoa, ohiak bidez itxiko da. Behirate hauentzat emisibitate termiko baxuko beira bikoitza erabiliko da. Banaketa guztietan lana mineral bidezko isolatzaile termikoa egongo da.

Behar den beroa ekoizteko bide berriztagarri bat harteagatik apostua egin da, biomasazko galdara, pellet-ez hornitua hain zuzen. Honek eraikinaren eraginkortasun energetikoa lagundu egingo du.

CONSUMO DE ENERGÍA PRIMARIA NO RENOVABLE (kWh/m <sup>2</sup> ·año)		EMISIONES DE DIÓXIDO DE CARBONO (kgCO <sub>2</sub> /m <sup>2</sup> ·año)	
<23.89 A	11,36A	<4.69 A	1,81A
23.89-38.8 B		4.69-7.62 B	
38.81-59.71 C		7.62-11.72 C	
59.71-77.63 D		11.72-15.24 D	
77.63-95.54 E		15.24-18.75 E	
95.54-119.43 F		18.75-23.44 F	
=>119.43 G		=>23.44 G	



UR HOTZ HORNIDURA SUKALDEA ARRASKA




SANEAMENDUA PASOKO ARKETA AURREFABRIKATUA



SIFOI METALIKOA BISTAN



KONKETA UR HOTZ HORNIDURA



SANEAMENDUA ARKETA SIFONIKOA AURREFABRIKATUA



SUMIDERO LINEALA DUTXA KOMUNETAN

### UR HOTZ HORNIDURA / SANEAMENDUA

ARAUDIA: CTE DB HS

Ur hotzaren hargunea, Santo Domingo kaletik pasako den sare nagusitik egingo da. Bertatik ura sotora jeitsi eta gero ponpaketa sistemaren bidez eraikin osora banatu. Hiru horniketara sare desberdin banatzen dira ur hotzaren barnean: Alde batetik ur hotzaren kontsumurako, aldagela, komun, sukalde eta kafetegian; beste alde batetik, suteen aurkako sarea hornitzeko, adar hau kontagailurik gabe izanik; eta azkenik UBS eta kalefakzio sareak hornituko dituen.

Suten aurkako instalazioari dagokionez, instalazioa ere bitan banatuko da, alde batetik sute ahoak hornitzeko eta bestetik ihintzagailu sarea hornitzeko ere.

Sarearen banaketarako sistema adarkatua erabiliko da, eta lehenik aipatu bezala, eraikinaren gestio hobearren alde egitearren, sarea bitan banatuko da, alde batetik kafetegia hornitzeko eta beste alde batetik kiroldegia hornitzeko. Kafeteriari dagokionez hornitze puntu bakarra egongo da, behe solairuan sukalde hartuko duena eta sotoan komunak. Polikiroldegiari dagokionez bi horniketara puntu egongo dira: bata behe solairuko aldageletarako eta bestea sotoko aldageletarako.

Sarearen adar nagusiak galeriaren barnetik joango dira, eta bertatik honitze puntuetara. Eraikin barneko banaketa, sabai faltsutik eta tabikeen barnetik egingo da hornitu beharreko elementuetara iritsi arte.

Saneamenduari dagokionez, sarea elementu desberdinen sifoiaren hasi eta adarrak zorutik hedatuko dira. Adar hauek ere galerian amaituko dute non euri ur eta drenajearekin aurkituko dira eta paraleloan joango dira, sareak banatuta, hiri mailako sare nagusira heldu arte. Honetarako ponpaketa sistema bat beharrezkoa izango da, -2 sotoko urak sarera iritsi ahal izateko.





LANA MINERALEZKO PANEL TERMO AKUSTIKO BIDEZKO KONDUKTU LAUKIZUZENA



KOLPEEN AURKAKO LAMINA



BANDA ELASTIKOA



SABAI FALTSU MIKROPERFORATUA

**AKUSTIKA**

Eraikinaren erabilera dela eta, soinu intentsitate oso desberdineko egoerak garatuko dira bata bestearen ondoan, bai eta itxituren aurkako kolpe askoko egoerak ere. Hori dela eta, kirol ekintzetara bideratutako gelak insonorizatuak egon beharko dute. Hauek izango dira behe solairuan: Bi squash kantzak, kolpeen aurka isolatuak batez ere, horma eta zoruaren eta gimnasioa, akustikoki isolatuak egongo dena batez ere.

Lehenengo sotoan, hiru kirol aktibitate gelak egongo dira, eta bere barnean soinu altuak emango dira, beraz akustikoki isolatu egin behardko dira, beraien artean baita polikiroldegia gainontzeko espazioetan ez eragozteko. Kolpeak zoruaren ere emengo dira kirol aktibitatearen ondorioz, baina hauen garrantzia, behean aparkalekua egonik ez da hainbesteko izango, hala ere, neurri gehigarri bezala, kolpeen aurkako lamina kokatuko da. Bestalde, "yoga" gelak ere aurkitzen dira, hauetan eskaria ixiltasuna izango da, eta horretarako barne banaketa akustiko isolatuen bidez inguratuko dira, baina ez dago kolpeen aurkako babesaren beharrik.

Beharrezko egoerak lortzeko lau sistema erabiliko dira nagusiki: Alde batetik jadanik aipatutako banaketa bai termikoki eta bai akustikoki isolatuak, zeinak soinua sartu edo irritez babesten duen, hau pladur sistema bikoitza erabiltzean datza, lana mineralezko isolamenduarekin. Bestalde, gainazalaren kolpeen aurkako lamina kokatuko da, batez ere zoruaren, saltoak edo bestelako inpaktuak beheko solairura ez transmititzeko. Inpaktuen aurka ere, banaketa bertikalen azpian banda elastikoa kokatuko da, tabikeak forjaturako soinua garraiatzea eragozteko. Eta azkenik, Sabai faltsua panel mikroperforatuen bidez egingo da soinua sabaitik gora joatea eragozteko.

**ARAUDIA: CTE DB HR**

**UBS/KALEFAKZIOA**

**ARAUDIA: CTE DB HS4 / CTE DB HE2 / RITE.IT.1.1 / RITE .IT.1.2**

Bero sortzaile bera erabiliko da UBS eta kalefakzioarako, pellet bidezko biomasa galdara. Galdararekin batera, pellet biltegia kokatuko da. biak -2 sotoko instalazio gelan kokatuko dira. Pellet kamioia gela honen gainean kokatu daiteke eta konduktu bertikal baten bitartez biltegia modu simple erraz eta azkar batean hornitu.

UBS sareak eskaera puntual oso handiak izango ditu, kirol ekintzen amaierarekin bat izango direnak. Eskaera hau bermatzeko, UBS metagailu eta trukagailuak kokatuko dira galdararen ondoren, UBS-aren sarearen barne.

Bestalde, berokuntza sistema lineal kokatutako berogailuen bidez egingo da. Aireztapen sisteman kokatutako bero berreskuratzailari esker hasiera batean planteatutako baina elementu gutxiago beharko dira eraikinaren beharrik bermatzeko. Beste instalazioetan gertatu den bezala, erabilaren arabera sarea banatu egingo da eta erabilera bakoitzeko kontagailuak jarriko dira gestioa banatua egin ahal izateko. Estetikaren aldetik, berogailu bertikalak jarriko dira hormen kontra eta horizontalak beirate edo barandila guneetan.



BIOMASA GALDARA. PELLET 50KW




TRUKAGAILUA



UBS METAGAILUA



BEROGAILU BERTIKALA, HORMAREN KONTRA




**AIREZTAPENA**

**ARAUDIA: CTE DB HS3**


Aireztapena eraikinaren erabilera dela eta garrantzia izango duten instalazioa izango da. Honetarako aireztapen mekaniko sistema izatea beharrezkoa izango da. Hala ere, aireztapen natural gurutzatua bermatzen sahiatu gara eraikinaren geometriak baimendu duen ehinean.

Aireztapenaren instalaziorako bi sistema desberdin erabili dira. Aparkalekuarentzako haizagailu helikoidalak eta polikiroldegirako aireztapen mekanikoa bero berreskuradoreekin, honen efizientzia termikoa %90,7 delarik. Bietan inpultsio eta itzulera sareak edukiko ditugu. Polikiroldegia kasuan, bi sarean paraleloan garatuko dira gehienbat. Polikiroldegia sarea lana mineralezko panel termo akustiko zurrun laukizuzen bidez egin da, eta aparkalekuarena berriz, altzailu galbanizatuzko konduktu lauki zuzen bidez.

Makinak airearekin kontaktuan kokatuko dira alboan azaltzen diren tokietan: Aparkalekuaren kasuan, hiri altzariak erabiliko dira haizagailuak kokatzeko, eta polikiroldegia kasuan erabiliko diren errekuadore desberdinak galeriaren ondoan kokatuko dira, burdin sare baten bidez babestutako espazioan. Oro har haizearen inpultsio eta ekstrakzioarako erregila laukizuzenak erabiliko dira, bai sabai faltsuan enpotratuak baita hormetan ere. Hala ere, kantzaren kasuan, hain espazio handia edukita toberak erabiliko dira inpultsiorako irismen handiagoa izateko gaitasuna baitute.




LANA MINERALEZKO PANEL TERMO AKUSTIKO BIDEZKO KONDUKTU LAUKIZUZENA



BERO ERREKUPERADOREA



TOBERA. ESPAZIO ZABALEN AIREZTAPENA (KANTXA)



INPULTSIO ETA RETORNO REJILLAK. SABAI FALTSU EDO HORMETAN.

**ARGIZTAPEN ARTIFIZIALA/ELEKTRIZITATEA**

Argiztapen eta elektrizitatearen instalazioak elkarrekin doazen elementuak izango dira, bata bestea hornitzen baitu, eta beraz argiztapenak modu batean ere elektrizitatearen potentzia eskaria balditzatuko du. Elektrizitatearen harguneari fatxadaren ondoan egin behar da eta fatxadan bertan neurketa kutxa kokatu, ondoren jabetza pribatuaren barnean elektrizitate sarea has dadin. Erabilaren arabera zirkuito elektriko desberdinak ere banatuko dira kasu honetan, lehen esan bezala, eraikinaren gestio egokiaren alde egitearren.

Argiztapenari dagokionez, eta eraikinaren erabilera dela eta, argi "hotza" izango da eraikinean nagusia. Horrela izanik, eta eraikinari goxotasun kutsu bat emateko, espazio publikoetan argi "beroa" erabiliko da, baita kafetegiko espazioan. Kirol espazio guztiak argi hotzaren bidez argiztatuko dira, sabuespen, bi "yoga gelak" zeinetan erosotasuna bilatuko da argi beroaren bidez.

Argiztapen naturala, bakarri behe solairuko espazio nagusietan lortuko dugu. Kirol gela guztietan ez da argi natural sarrera zuzenik egongo. Kantzaren espazioa izango da, bai fatxada eta baita modu zenitalean argi natural sarrera nagusiak edukiko dituen espazioa. Hori dela eta, eta polikiroldegia altuera guztia hartzen duenez, honen banaketa gehienak beiratzkoak izango dira, eta baita honetara ematen duten kirol espazioenak ere. Modu honetan bilatzen dugu, nahiz eta modu ez zuzenean izan, espazio hauetarako argi natural sarrera.

**ARAUDIA: ARGIZTAPENA: CTE DB HE3 ETA SUA4 ELEKTRIZITATEA: REBT**

**SANTO DOMINGOKO BARATZEN PARKEAREN BERREGITURAKETA POLIKIROLDEGI ETA APARKALEKUA**

SANTO DOMINGOKO BARATZEN PARKEAREN BERREGITURAKETA  
POLIKIROLDEGI ETA APARKALEKUA

PROIEKTUAREN LABURPEN MEMORIA

D.A.G.E.T. 2018/2019. IKASLEA: Sara Garin Garcia  
MAL ZUZENDARIA: Maria Olatz Irulegi